

## HIRUERRIETA

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta beronen Toponimia Batzordeko Idazkari denak, ondoko hau

### ZERTIFIKATZEN du

Herri Izendegi Batzorde honek, bere azken bilkuran, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Diputazioan, hil honen 3an egindakoan, beste gai batzuren artean, Udal horretako informe eskaria ikusi zuen eta eritzi hauetara heldu zen:

1. *Hiruerrieta* hitza ongi hedatua dela hizkuntzaren aldetik. Bestalde tradiziozko izena ez denetik eta ez eta historikoa, eskubide osoa duela Udalak oraingo grafia normalizatuan jartzeko, alegia, HIRUERRIETA forman.

2. Hala eta guztiz ere, batzorde honek zenbait kontsiderazio egiten dizkio Udalbatzarrari eta hara hor:

2.1. Udal horren izena, lehengo hiruren bilduma egin zenetik ofizialki beti izan da Iruerrieta (ikus B.O.E. 1966-4-26) eta ez Ikaztegieta, ez eta Orendain, ez Baliarrain. Iruerrieta 1966an sortua izan zen, beraz, 16 urte bakarrik ditu eta ez du aspalditasun gehiagorik.

2.2. Fausto Arozena Probintziako Artxibari-Burua zenak, Gipuzkoako zenbait udal txiki batukeran, bere iritzia azaldu zuen, hala nola, "Bidegoyan", esanaz, Gipuzkoako Foru tradizioan eta historian izenak nondik hartu bazuedela: *Saiatz* kasu honetan. Informe horiek Gipuzkoako Diputazioan egongo dira.

2.3. Ildo honetara eraman daiteke Udal honen izena ere, zeren eta —Ikaztegieta izena, udal-hiriburuaarena, ez bai zen onartua izan— hor zegoela eta dagoela *Bozue* izena, zenbait udalen izen kolektiboa XII. mendetik dokumentatua; beraz, Gipuzkoako onomastikorik zaharrenetarikoa. Bozue eskualde txiki baten izen amankomuna zen eta bi komunitatetan banatua, bata, "Bozue Mayor" (Bozue Nagusia izango litzateke euskal bertsioan), bost udalek osotua: Amezketeta, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain. Beraz, azken hirurak gehiengo bat izan bazuten, izen hori hartzeko eskubidea. Baita ere, Bozue komunitate honen gorengo udalak Ataun, Lazkao, Zaldibia diren bezala, beheengoak edo behekoak Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain baidira, *behea*, *behekoa* hitz jokuaz baliatzea zilegi litzateke.

Eta hala adierazteko eta aipaturiko Udalera bidaltzeko, izenpetzen dut, Bilbon, mila bederatzehun eta laurogetahirugarreneko Urtarrilaren hamakan.